

zakilixut

© Olariagak



Ainara Argoitia | DONOSTIA

ATZEKOZ AURRERA



GARI GARAIALDE

Benet Salgadok antzeztutako Daisy aktore pornoa iritsi zen unea.

diz. Bitxikeria ugari, atzo frogatu ahal izan genuenez: isiltasuna behar zenean tartekako barre algarak; garrasiak behar zirenean, berriz, nahi baino oihu motelagoak, estren joan-etorriak, produkzio laguntzailearen azken orduko presak...

Pertiga, grabaziora gaupasaz agertzen den drag queen pilulazalearen —Alain Dominguezek antzeztua— eta Daisy bizimodua aurrera ateratzearren kubatar gisa ari den alacantarraren pertsonaiek —Benet Salgado— sortu zuten ikusmin handiena. Mercedes handi batean iritsi zen Daisy aktore pornoa Alde Zaharrera, bekozko iluneko bi bizkartzainek lagunduta. Arropa sobra handiegirik gabe egin zuen Daisyk antzokira artekoa, bere jarraitzaile sutsuen garrasi artean. Fikzioak errealitatearen itxura handia hartu zuen orduan, eta jende ugari hurreratu zen grabazio lekura, oihuek erakarrita-edo. Haietako askok, gainera, telebistako minutu batek asko balio duela pentsa bide zuten, estra gisa aritzeko zuzendariak egindako eskaera gustura onartu baitzuten. Hiruzpalau adineko emakume, nerabe ugari, zenbait turista eta aktoreak erretratatzera joanak ziren hainbat argazkilarik Daisy aktorearen «fan» bihurtu ziren une batez, eta aktore onenaren pare jardun zuten, builaka eta unean-unean behar zena eginaz.

Kanpoaldeko grabazioak egin ostean, Antzoki Zaharrera sartu ziren guztiak. Zakiltegi lehiaketako sari banaketa irudikatu zuten bertan, Marivi Bilbao, Paco Sagarzazu, Patxi Santa Maria, Mila Espiga eta beste zenbait kolaboratzaile ezagunen laguntzarekin. Film luze bateko gorabeherak antzezteko helburu; azkeneko, ordea, nahi baino bitxikeria gehiago izan ziren. Berriz ere fikzioak eta errealitateak bat egin zuten.

Fikzioaren erreala

‘Making off’ film laburrerako hainbat hartualdi grabatu zituzten atzo Donostiako Alde Zaharrean



GARI GARAIALDE

Egun osoz aritu ziren Making off film laburrerako irudiak hartzen.

Soinua, kamerak, prest? Bat, bi, hiru... grabatzen!». Eta berriz; «bat, bi, hiru... grabatzen!». Eztarria urratzeko adina alditan errepikatu behar izan zituzten hitzok atzo Ainhua Goikoetxeak eta Juanan Urkiolak, *Making off* film laburreko zuzendariak. Donostiako Antzoki Zaharren inguruan jardun zuen 40 lagunetik gorako lan taldeak, egun osoz, grabazio lanetan.

Lan talde handitan ohiko denez, guztiak bat etortzerako denbora luze aurrera eta azkeneko film laburrak luzearen tankera hartu zuen.

Kleopatren inguruko film labur «kaotiko» baten parodia antzekoa da *Making off*, Juanan Urkiola zuzendarietako batek EGUNKARIARI aitortu zionez. Film labur bat grabatzerako orduan izan ohi diren gorabeherak konstatzen dira bertan, umore han-